

**Udal-hobariak**  
2022ko urtarrilaren 1etik aurrera

*Aberastasunaren banaketa  
justuago baten alde*



Usurbilgo Udala

## Zer dira

Tasa eta prezio publiko bidezko **oinarrizko zerbitzuak** jasotzeagatik ordaindu beharreko kuotetan aplikatzen diren onura ekonomikoak dira hobariak.

## Hobariak aplikatzen zaizkien zerbitzuak

- Ur hornidura zerbitzua
- Hondakinen bilketa eta tratamendua\*
- Estolderia zerbitzua
- Hileta zerbitzuak\*\*
- Udal-baratzeen erabilera
- Oiardo kiroldegiko abonua eta ikastaroak
- Haur Eskola
- Udajolas

\* Etxebizitzetara dagokien tarifa finkoari lotuta.

\*\* Ehorzketak eta hobitak ateratzea, panteoikoak izan ezik.

Oharra: legez, ur hornidura, hondakinen bilketa eta estolderia zerbitzuaren hobariak etxejabeek soilik aplikatu ahal dakizkieke.

## Nork eska ditzake hobariak

Usurbilen erroldatuta egonda zerbitzuaren titularrak direnek. Uraren, hondakinen eta estolderiaren kasuan, titularrak etxejabeak dira.

## Onuradun izateko baldintzak

### Errolda

- > Bizikidetzaren unitateko kide guztiak Usurbilen erroldatuta egon beharko dute eskaria aurkeztu aurretik. Guztiak izango dira onuradun gisa kontuan hartuak.
- > Bizikidetzaren unitateari eragiten dion erroldako edozein baja edo alta jakinarazi beharko zaio udalari, horien ondorioz hobaridun izateko baldintzak alda daitezkeelako.
- \* Bizikidetzaren unitate gisa ulertuko da lege honetan zehaztutakoa: 18/2008 legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, 9. artikulua.

### Baldintza ekonomikoak

- > Bizikidetzaren unitateek honako urtero diru-sarrera mugak izango dituzte kide kopuruaren arabera:

Bizikidetzaren unitatea osatzen duten lagunak	Hobaria		
	%90	%75	%50
1	< 14.861	14.861 – 16.888	16.889 – 20.265
2	< 19.454	19.454 – 22.021	22.022 – 26.480
3	< 21.211	21.211 – 24.183	24.184 – 29.047
4 edo gehiago	< 22.832	22.832 – 26.074	26.075 – 31.208

- > Adibidez: hiru kideko bizikidetzaren unitate batek, urtean, 22.000 euroko diru-sarrerak baldin baditu, %75eko hobaria izango du, eta, beraz, soilik tasaren %25 ordainduko du.
- > Urteko diru-sarrera gisa bizikidetzaren unitateko kide guztien urteko PFEZ aitortzen oinarri likidagarria hartuko da kontuan, aurkezteko epean balego, eta aurkeztu beharreko azkena, epea irekita ez balego.
- > PFEZ aitortzen aurkeztu ez bada, orduan, azken urte naturaleko etekin gordinak hartuko dira kontuan (nominak, ondasun-sarrerak...).
- > Onuradunaren edo bizikidetzaren unitateko edozein kideren kontuen saldoek ezingo dute, guztira, **30.000 euro** gainditu.
- > Onuradunek ezingo dute zorrik izan eskaria betetzeko orduan.
- > Agiriak ez badira zehaztutako epeetan aurkezten, eskaria ezetsia izango da, eta urte horretan hobarien onuradun izateko eskubidea ukatzea eragingo du.

### Ondasun baldintzak

- > Ohiko etxebizitzaren **katastroko balioak ezingo du 165.000 euro gainditu.**
- > Bizikidetzaren unitateko onuradunek ezingo dute bigarren etxebizitza bat jabetzan izan.\*
- \* Jabetzat ulertuko da etxebizitzaren %50 edo gehiagoren jabea bada.

### Erabilera egokiak

- > Zerbitzuen erabilera desegokia eginez gero, hobaridun izateko eskubidea gal daiteke. Erabilera desegokitzat hartuko dira:
  - Ur kontsumoa, pertsonako, 11 metro kubikotik gorakoa izatea.\*
  - Hondakinekin lotuta, arau-hausteren bat egitea.
  - Kiroldegiko ikastaroen kasuan, ikastorduen %20 baino gehiagora justifikatu gabe faltatzea.
- \* Matxuraren bat gertatu dela frogatzen bada, ez da eskubidea galduko.

## Noiztik aurrera aplikatuko dira?

Hobaridun egoera eabazpena ematen den egunetik aurrera izango da indarrean.

- > Hiruhileroko likidazioen kasuan, hurrengo hiruhileko osotik aurrera aplikatuko da.
- > Kiroldegiko abonuen kasuan, urtarrilaren 1etik aurrera.

**Ez da urtero berriro beharko:** onuradunaren baldintzak aldatzen ez diren bitartean, bere horretan jarraituko dute. Edozein aldaketa gertatzen bada, ordea, udalari jakinarazi beharko zaio. Udalak urtero berrikusi ahal izango du hobaridunaren egoera, ofizioz.

## Eskubide galera

Bizikidetzaren unitateko kide guztiei hurrengo **bi urteetan** hobaria jasotzeko **eskubidea ukatuko** zaie, eta jasotako hobariak **itzuli** beharko dituzte honako kasuetan:

- > Erabilera egokiak ematen ez badira.
- > Udalak, ofiziozko berrikuspena egin ostean, eabazten badu onuradunak ez dituela hobariak jasotzeko baldintzak betetzen, edo edozein baldintza aldatu eta udalari komunikatzen ez bazaio.

## Aurkeztu beharreko agiriak

- > Eskaera orria.\*
- > Foru Aldundian baldintza ekonomikoak egiaztatzeko baimenik ematen ez bada, bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

\*Usurbil.eus webgunean eta udaleko erregistroan egongo dira eskuragai.

## Nola eska daitezke

### Aurrez aurre, udaletxean

Joxe Martin Sagardia plaza z/g, 20170 Usurbil.  
Ordutegia: 08:00 / 14:30 · Telefona: 943 37 19 51

### Posta arrunta

Joxe Martin Sagardia plaza z/g, 20170 Usurbil.

### Internet bidez

- > <http://www.usurbil.eus/zerbitzu-telematikoa>  
Zergak, tasak eta isunak atalean topatuko duzu eskaera orria.
- > B@KQ txartela
  - Hobariak jasotzeko eskubidea Internet bidez eskatu ahal izateko, B@KQ txartela beharko duzu: sinadura elektronikoa da, zure identitatea ziurtatzeko balio duena. Usurbilgo Udalean eska dezakezu, edo [izenpe.eus](http://izenpe.eus) webgunean.
  - Udalarekin ez ezik, beste erakundeekin tramite elektronikoak egiteko ere balio du B@KQ-k: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Osakidetza...

## Zer bait ordaindu behar da?

Eskaerak egitea doan da.

## Noiz eska daitezke

Urteko edozein garaitan.

## Informazio gehiago

### Usurbilgo kontu hartzaileak

Joxe Martin Sagardia plaza, z/g · 20170 Usurbil  
Telefona: 943 37 19 51 · e-posta: [errenta@usurbil.eus](mailto:errenta@usurbil.eus)